



Euskara
2026EDIN0003

Elgoibarko UDALAREN eta BADIHARDUGU elkartearen ARTEKO

HITZARMENA

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO EKINTZAK DIRUZ LAGUNTZEKO

Alde batetik, **Maialen Gurmuxaga Uranga** andrea, Elgoibarko UDALEKO alkatea, beronen izenean eta ordezkari gisa, eta horretarako behar bezala ahalmenak dagoena.

Eta bestetik, **Asier Sarasua Aranberri** jauna, I5.382.082G NAN zenbakiduna, adinez nagusia, BADIHARDUGU elkartearen lehendakaria.

Bi alderdiek hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta honako hau

AZALTZEN DUTE:

ELGOIBARKO UDALAK, euskarak esparru guztietan garapen osoa izateko eta euskaraz bizitzeko dauden aukerak areagotu nahirik, euskararen erabilera bultzatzeko duten ekintzak antolatze laguntza eman nahi duela.

Hortaz, BADIHARDUGU elkarteak euskara eta euskalkiak bultzatzeko egiten duen ahaleginari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute jarraian zehaztutako baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da BADIHARDUGUri, 2026. urtean, Debarroko euskalkiaren ezagutza eta erabilera bultzatzeko Elgoibarko UDALAK emango dion dirulaguntza arautzea.

Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, ELGOIBARKO UDALAK (aurrerantzean, UDALA) dirulaguntza emango dio BADIHARDUGUri ondoren zehaztutako diren ekintzak bideratu ahal izateko. BADIHARDUGUK, berriz, hitzarmen du bere egitasmoa hitzarmen honetan jasotakoaren arabera burutuko duela.

Hirugarrena: Hona hemen UDALAK diruz lagunduko duena:

- ❖ Debarroko euskalkien ezagutza, erabilera eta transmisioa sustatzeko, BADIHARDUGUK 2026erako prestatu duen egitasmoa.

Laugarrena: Dirulaguntza hau UDALAK 2026. urterako indarrean duen aurrekontuko I 0208. 481.335.00.07.2026 zenbakidun partidaren kontura emango dira.

Bosgarrena: UDALAK, 2026. urtean, 600 euroko dirulaguntza emango dio BADIHARDUGUri, Debarroko euskalkia bultzatzeko. Egitasmoari dagokion aurrekontuaren gainerakoa onuradunak finantzatu beharko du; bai baliabide propioen, bai beste zenbait dirulaguntzaren bidez.

Seigarrena: Dirulaguntza hau jaso ahal izateko, BADIHARDUGUK 2026. urterako, euskalkia sustatzeko prestatu duen egitasmoa aurkeztu beharko dio UDALARI.



Euskara
2026EDIN0003

Zazpigarrena: UDALAK epe bakarlean ordainduko dio dirulaguntza BADIHARDUGUri, Udaleko kontu-hartzailetzak dagokion txostena egin ondoren.

Zortzigarrena: Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2026ko abenduaren 10era arte iraungo du.

Bederatzigarrena: BADIHARDUGUK, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- ❖ Dirulaguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
- ❖ Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel, testu eta agiriak edukietan.
- ❖ Dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia kontuan izatea.
- ❖ Sexu-bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duten egitasmo, proiektu edo jarduerarik ez antolatzea.
- ❖ Antolatzen diren jarduerak guztietan kontuan izango dira euskararen lehentasunezko erabilera, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, eta inklusioa eta integrazioa.
- ❖ Hitzarmenean aurreikusitako egitasmoa osotasunean gauzatu beharko du, eta horren lekuko baliagarria izango den agiriren bat aurkeztu beharko dio Udalari aurtengo urtea bukatu aurretik.
- ❖ BADIHARDUGUK eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearren fiskalizazio-funtzioak betetze aldera.

Hamargarrena: Onuradunak, dirulaguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko duen epea 2026ko abenduaren 10ean bukatuko da. Egun hori larunbata edo jaieguna bada, zuriak aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Justifikazioa era elektronikoan egingo da, eta honela egingo da:

- a) Jardueraren memoria, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete egin direla zuriu edo justifikatuko duena.
- b) Jarduerak izan dituen gastuen eta diru-sarreraren balantze orokorra.

Hamailgarrena: Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau bertan behera geldituko da.

Hamabigarrena: Hitzarmen honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatu xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

Hamahirugarrena: Elgoibarko Udalaren Hermitartasun Batzordeak izango du hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura.

Hamalaugarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

Hitzarmen honetan berriaz zehaztu ez diren kasuetarako, Elgoibarko Udalaren eta Bere Ardurapeko



Euskara

2026EDIN0003

Autonomiadun Erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Nagusia aplikatuko da. Halaber,

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan.

Eta bi alderdiek, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmena sinatzen dute izenpean jasotako egunean.

Sinatzailea/k	ALKATEA, MAIALEN GURRUTXAGA URANGA ASIER SARASUA ARANBERRI, BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA		
Kodea	HI26/0029	Udala	Elgoibar
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/100/AAAA94VD4.pxNm		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitez edo QR irudia irakur ezazu.			